

ZORION AGURRAK

Zorion agurrak gertaera zehatz bat dela eta norbait zoriontzeko erabiltzen diren idazkiak dira. Urtebetetzeak, seme edo alaben jaiotza edo gabonak bezalako momentuak zoriontzeko adibidez.

Hainbat formula ezberdin erabili ditzakegu zorion agurrak idazteko, lagunartekoetatik hasi eta formalagoak direnetaraino. Hona hemen zenbait adibide:

<i>[bezero/lankide/...] hori:</i>
<i>[enpresa]-(e)ko langileok [jai zoriontsuak] opa dizkizugu!</i>
<i>[igorlearen sinadura] [izen-abizenak] [kargua]</i>

- *Jaso ezazu gure familiaren izenean zorrino agurrik beroena. Urte askoan horrelaxe jarraitu dezazula bihotz-bihotzez.*
- *Zorionak eta urte askotarako! Jarraitu jator eta denon lagun, orain arte bezala. Agur eta musuak.*
- *Bihar zure eguna dela jakin dut eta bihotz-bihotzez opa dizut egun zoragarria eta zure etxekeekin ondo-ondo pasatzea.*
- *Izan zaitetz zoriontsu zure urtebetetze egunean eta urte askoan horrelaxe jarraitu, jator eta zintzo zure lagunekin eta hain maite dituzun etxekeekin.*
- *Gure zorionik zintzoena Gabon hauetan, eta urte berrian osasuna opa dizut.*
- *Gabon zoriontsuak eta urte berri on.*

Miren eta Jonentzat:

Jaso ezazue gure zorionik beroena. Pozaren pozez ibiliko zarete, bat-batean aita-amak izatea ez da eta egunero gertatzen. Egoera hori benetan berezia da eta, aldi berean, ederra eta handia, bizitzan sentitu daitekeen gauzarik zoragarriena. Laster izango gaituzue hor bisitan, zuen alabatxoak ezagutzeko. Deituko dizuegu joan aurretik.

*Berriro ere zorionak eta ondo izan.
Arrasaten, 2012ko azaroaren 14an.*